

AKTORE BATI ELKARRIZKETA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

SUSANA: Bai, film guzti horiek atzean geratu dira. Ez diet hauei uko egiten, ezta pentsatu ere. Nerabeentzako film onak izan ziren, baina, esan bezala... nerabeentzako, ulertzen duzu? Orain nire karrerak bira bat eman du. Heldutasunean nago. Orain, rolak behar bezala prestatzen ditut. Paper serioak. Pertsonaietan murgiltzen naiz, haien inguruabarretan. Haiekin zerikusia duen guztia sakon aztertzen dut. Jenny-z egiteko, "Errendizio bidea"-ko prostituta, hiru hilabete eman nituen Askatasun parkera sarri joaten, gauetz. Benetako Jenny bat bezala janzen nintzen, eta orduak ematen nituen han. Izugarria izan zen. Gero, filmazioan, 'akzioa!' esaten zutenean, 'dokumentala!' esango balute bezala zen niretzat. Hain... erreala zen niretzat! Oraindik e-mailak elkar idazten ditut hainbat neskekin. Gauza askoren kontzientzia hartzeko balio dit: prostituzioaren arazoa, adibidez. Orain dena beste modu batean ikusten dut. Pertsona gisa hazten laguntzen dit. Irabazten ari naiz... kontzientzia soziala. Sakontasuna. Unicef-ek proposatzen badit, ez dut zalantzarik izango noizbait borondate oneko enbaxadore egitea, egia esan, seguru nago. Aspaldi, kontu handiz aukeratzen ditut filmak. Gidoi asko irakurtzen ditut. Iristen zaidan zerrikeria-kopurua ikusi beharko zenuke. Eta hautatu beharra dago. Hasteko, ez dut ezer baztertzen, dena irakurtzen dut, izan ere: altxor txiki bat ezkutatu daiteke gidoi-mendi batean. Eta hori da film honekin gertatzen dena. Gidoi-mendi bat nuen etxean. Denak irakurri nituen; eta azkena, hauxe. Beno, filma ez da zoragarria, gidoiak akats batzuk ditu, baina Eileen-en pertsonaiak konpentsatzen du. Lehen emakumea heriotzaren korridorean. Beno, ez lehena, baina bai garrantzitsuena. Heriotza-zigorra gizonen kontua dirudi, ezta. Ba, ez da hala. Heriotzaren korridorean emakumeak daude ere. Zenbat denbora pentsatu duzu horretan? Nik ez dut inoiz pentsatu. Eta orain, duela hilabete batzuetatik, guztiz murgilduta nago. Kontzientzia hartu dut, kontzientzia handia. Heriotza-zigorra izugarria da. Eileen-ekin hitz egin nahi izan nuen, benetako Eileen-ekin -istorio hau benetako gertaera batean oinarrituta dagoelako-, eta harekin hitz egitera joan nintzenean, ezin izan nuen... jada exekutatu zutelako. Heriotza-zigorra izugarria da... (Akituta) Pertsonaia erreferentziarik gabe interpretatu behar izan nuen. Hala ere, uste dut nahiko ondo egin nuela.

Ele txera
Mundua ez da berdina

